PAKO ARISTI

# urari ostutako poemak

# Urari ostutako poemak

Pako Aristi

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2014 Pako Aristi
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2014ko iraila
Edizio hau: 2014ko iraila

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Eta itsasoak
ordaindu zuen bere zorra
mendeetan inspiratu dituen
poema guztien bitartez

William Butler Yeats

# ITSASOARI BEGIRA

Badira pertsonak
itsasoari begira
mundua ulertzera
iristen direnak.

Bada liburuak
irakurtzen dituenik
halan itsasoa
ulertuko duelakoan.

Bada itsasoari begira
bizitza bera
uler daitekeela
uste duenik ere.

Eta badira pertsonak
itsasoari begiratu
ahal izateko soilik
bizi direnak.

Mundua eta bizitza
elkartzen baitira
begirada itsasoarekin
batzen den angeluan,
sahatsaren eta kresalaren
arteko muxuaren aroan.

# BIDAIAREN TRENPUA

Bidaia grina baten legamiak
haizatutako oihal txuri bat da.
Irudimenean egunsentitzen da,
eta etxeko abegia
utzi aitzin ere
bizi ditu bidaiaren ideiak
gure hezur-muin
eta arnas-mamiak.

Lehen pausoekin lurreratzen da
airearen lainezan zetzan asmoa.
Ez du presarik izanen
bere patua burutzen,
bidaiak ez baitaki
—gure burmuinaren ernegaziorako—
denbora kudeatzen.
Erosotasunik apurrenak aski zaizkio,
eta soberan egunaren orduak
eta urtearen elurteak.

Zure bidaiaren abiapuntuko
espazioa familia izanen da.
Benetako munduaren
miniaturazko antzezpen bat,
aktorerik bikainenak
zure mesedetan,
eta zu zeu, oharkabean,
parte hartzaile obran.
Berdin dio tragedia, drama
edo komedia suertatzen den.
Ez da garrantzitsua.

Bizitzan dena da bizitza,
ez dago tenpu morturik,
bidaiak ez du bereizten
ordu asko eta gutxiren artean
ez duelako ezagutzen
‘atzo’, ‘bihar’ edo ‘gero’
gerta litekeen espanturik.

Ez du gogaitzen
iritsi bitarteko asperdurak,
iritsitakoan ere

bizirik darraielako
orainaren abenturak,
baitaki hasiera orotan
zerbait amaitzen dela,
eta amaitzen denetan
zerbait hasi.

Bizitza bera da bidaia nagusia;
bidaia, bizirik gaudeneko
eskaintzen zaigun
jakinduria iturri.
Bizitza, bidaia
eta haien gerizan
zu eta ni.

# ERLOJUAREN AMETSA

Denbora asmatu zuenak
—orduak gure menera
makurtu nahia—
ekintza militar bortitza
gauzatu zuen
izakien arteko oreka
purtzilaren aurka,
jakinduriari abiadura
kontrajarriz.
Bata motel, bestea bizkor;
bata geldo, bestea zizpuru;
bata lehor, bestea umel.
Iritsia zen bitasuna
deblauki
batasunaren lilura ilauntzera.

Denbora asmatu zuenak
aspermena ernaldu zuen,
norabait iristeko
geratzen den denbora
betetzen asmatzen

ez duenaren kondena,
unerik pizgarrienak
beti gero
—bihar, etzi, geurtz—
iritsi zain
datzanaren etsipena.
Orduak igarotzen ari direla
uste duenak
ez baitu ikusten
egote hutsaren probetxurik.

Denbora asmatu zuenak
‘mugimendua’ bilakatu du
bidaiaren epiteto nagusi,
eta leihoaren aurrean
munduaren kontenplazio
infinituaren miran
laketzen zirenak
desagertu egin dira
telebista aparailuak
gure etxeetako leihoen
neurrira ekoizten
hasi zirenetik,
denbora asmatuz

aspermena ernaldu zuenaren
ekintza militar bortitzari
ezinbesteko
babes publizitarioa
eskainiz.

# ABIATZEKO ORDUAN

Ez epaitu besteen akatsak;
aldiz, baliatu zeureak
hobeto ezagutzeko.
Zaindu zure usteak,
zeure buruari
kontatzen dizkiozunak,
bizitako zorigaitzari buruz
dugun iritzia
sarritan
mingarriagoa baita
zorigaitza bera baino.

Eta lagunen bat,
etxekoren bat
zurekin haserretzen bada
ez kezkatu,
ez da ezer pertsonala;
euren heldutasuna lortzeko
ezinbestez
jarraitu behar zuten
bidea baino ez baitzara.

Terapia bat
aurkitu dute zuregan
haiek hobeto bizi daitezen.
Onar ezazu sakrifizioa.
Lore baten petaloa
jausten denean
unibertso osoa ikaratzen bada,
onar ezazu duintasunez
zure galera.
Harentzat ez zara lore bat baino gehiago.

Zoaz, abia zaitez
eta bizi
bideak eskainiko dizun guztia;
ez dezazula esan zahartzaroan,
etxeko leihotik mundu osoa
ikus daitekeela
zioenaren hitzak
ulertzera iristen zarenean,
‘bizitza’ deitu zuten
opari eder hura
zaborretara bota zenuenik.

# EZ DA BIZITZA

Ez da bizitza egunero
igarotzen dena,
gu baizik, orduero,
bizitzaren baitatik goazenak
zirkinik ere eragin gabe betikotasunari.

Inongo jainkok ez gintuen aukeratu
eta ez dugu bere errukia
irabazi beharrik izan.
Erlojuaren orratzak gure aspermena
neurtzen zuten amesgaizto bihurtu zirenean
ihesi joan ginen, urrun,
hain urrun non
geure burua aurkitu genuen:
han zegoen, herabe eta uzkur,
gure izaera, nortasun-mozorroa jantzita,
ispiluetan multiplikatuz
gure misterio gosea.

Ez da bizitza igarotzen dena
egunero, orduero,
gu baizik bere baitatik goazenak
betikotasunari espasmo txikienik
eragin gabe.

Ohituren errepikaketan
izerdi asko isuri dugu
berritasunak sortzeko unean
arima izozten zitzaigulako.
Tradizioa deitzen genion frakasoari,
eta antsiolitikoekin ezabatzen genuen
kaxkarkeriaren ispiluan
multiplikaturiko samina.
Basamortua bustitzen ez duen langarra
zitzaigun jakinduria,
ikasi behar ez zena ahaztu ezinik
ikasi nahi genuena
badakigula konturatu ginen arte.

Ez da bizitza uneoro
igarotzen dena,
gu baizik bere baitatik ihesi,

gure ezerezean dena daukagula,
unibertsoa ere badaramagula
ahaztu genuen
egunaren bila.

# HITZEN HEGALDIA

Ibai baten aurrean zaudenean
hitzak ez dira ur-tantak baino,
euren azentuekin kantari datozenak
haltzen eta lizarren arteko
saihesbideak bilatzen.

Itsasoari begira zaudenean
hitzak uhararen pindar distiratsu
bilakatzen dira,
euren galdera ikurrekin
itotakoen arimak izendatzen.

Mendian zaudenean hitzak
hosto eginak daude
arboletan zintzilik,
eta pentagramarik gabe
kantatzen diote kukuari.

Neguan hitzak elur-maluta
bihurtzen dira,
eta papogorriaren odolaz

tindatzen dute
zuritasun handiaren erreinua.

Pertsona batekin zaudenean
hitzak haren begietan daude,
su hormatu bat
zauritu zuten umearen kalotan.

Heriotzaren aurrean aurkitzen zarenean
hitzak topaketa ospatzen duten
lagun zaharren arteko
diliña bihurtuko dira,
eta bizitza berri baten
lerarik gabe
desagertuko dira
arginabarrean.

# ARGITXINTA PORTUAN

Egunsentiaren ilinti gorian
artean ura itsasoarena ez denean
badago orduak inauguratzen dituen eremu bat,
pinu-orratzak oboe izateko ametsetan
firurikatzen dituen kristalezko haizean.

Ez da ezer entzuten
dena geure baitan datzalako,
ez da ezer ikusten
guregan ikusten ez dugunik existitzen ez delako.

Hala ere urdinaren apar ilunak
errezelak irekiko ditu
argiari amodioa eskainiz bezala
mendeetan harkaitzen bolumenak
gorpuztu dituen kresalaren erresuman.

Ez da ezer ikusten
dena geure baitan datzalako,
ez da ezer entzuten
guregan ez dagoen kanturik existitzen ez delako.

Urratuko dute zeru saretu bat
itsasontzien damorria kantatzen duten tutuek,
eta bakardadea zer den esango digute:
suak itzaltzea lortu ez zuen uhinen lantua,
gure baitako isiltasun erraldoia oboe-soinuz
eta amodioaren argirudiz betetzera datorrena.

# GELTOKIKO TABERNAN

Goizean goiz anisa edaten duten lo-galduak,
izotz-landuzko bideetan brujula bila bailebiltzan;
inorengan erreparatzen ez duten prentsa irakurleak,
bakardadeari bizkarra ematen diotela pentsatuz;
egunonik gabe barrura hurbiltzen diren
bidaiariak, agurrik gabe alde egiteko;
inguruko obra publikoren batean
lanean ari ziren langileak,
pozik euri-jasa dela eta;
kristalezko laukitxodun ate urdinxka bat.

Eta euria andeneko harlauzetan tunpaka...

Hala ere
trenak iristen dira helmugara,
ezin da denborarik gelditu,
eta ezin dugu asmatu non erratu ginen.

Eta euria tunpaka andeneko harlauzetan...

Hala ere
ezin da trenik gelditu,
denbora beti iristen da helmugara,
eta ez dugu asmatu nahi
non erratu ginen.

Geltoki zikin hau leku atsegin
bihurtzerainoko izuikara
eragiten du bizitzak batzuetan,
hartzen ari naizen kafe hau ez nuke
inoiz amaitzerik nahi,
baina filmak aurrera darrai.

Eta euria andeneko harlauzetan saretuz...
erratutako trena hartu genuen egunean.

# MAITASUNA ZELAKOAN

Emakume asko izan da nire bizitzan,
baina maitasunik ez da hainbeste izan.
Amodioa emakumeekin identifikatzea
izan da nire akatsa.

Samurtasunaren beharrean zaudenean
nola pentsatu hori horrela ez denik?

Ez nuen hartzen jakin
askok eman nahi izan zidaten maitasuna.
Eta ez nuen ikusten jakin
maitasuna ematen zidatela uste nuen batzuek
ez zidatela maitasun askorik eman.

Neuk ere ez nien denei
maitasuna eman nahi izan,
eta eman nahi izan nien askori
ez zitzaien aski maitasun iruditu.

Malkoak sarriegi agertzen hasi zirenean
egia bat margotu zuten
nire begietan:
itsasora botatzen diren
loreen antzeko zaizu maitasuna,
eder beren koloretan,
antzu beren ezdeusean,
eta sentimenduekin
su-festak egiteari uzteko
agindua jaso nuen.

Hori izan zen nire borroka nagusia:
Maitasuna eman duenaren
lasaitasuna sentitzea
eman ez zuelako
errudun zatekeenaren
harrabotsetan.

Amodioa uberarik gabeko
jario bat dela
ulertu nuen arte,
biltzen gaituen hozkirri askea,
ez eman eta ez hartu daitekeena,

gure kalkuluekin
inoiz ezer jakin
nahi izan ez duen altsuma.

# BUENOS AIRESKO EURIA

Buenos Airesko euriak
abenida zabaletako arbolak inarrosten ditu,
eta horrekin batera
nire haurtzaroa ere astindu egiten du
Buenos Airesko euriak.

Ni umemoko bat izan naizelako
Cafferata kalean,
ontzi batetik jaitsi nintzen
portu ezezagun hits hartan,
eta amaren magaletik
mundu epelago baten besoetara
nindoala esan zidan
Buenos Airesko euriak.

Kale hauetan zabuka ibilia naiz
izkinetako lurrunetan desagertzen ziren
amodioen atzetik,
Puerto Maderoko moiletan
izerdia isuri dut,
trenetan ihesi joan naiz

jeloskor batzuen labanetatik,
baina gaurik txarrenaren muinean
ere beti lasaitu izan nau
Buenos Airesko euriak.

Hemen hil nintzen,
kafetegi dotoreetako argien
distiratik urrun,
ez zen tangorik izan nire omenez,
ezta toparik ere nire arimaren alde.
Baina ez nintzen gustura hil,
eta itzuli beharra neukan:
zorion izpi baten zorra zeukan nirekin
Buenos Airesko euriak.

Eta gaur, kafetegi honen epelean
tangoak entzunez,
bizitza ziztrin hartan
laztan-egarriz akitu zen
gizagaixo haren omenez
xanpain kopa altxatuz,
bihotz-muineraino iritsi zaidan
zirrara batekin ordaindu dit zorra
Buenos Airesko euriak.

# ERREBELDE ZAHARRAREN BALADA

Ni indartsua naiz
ahuldadea agertzeko arazorik ere
ez daukadalako.

Ni ausarta naiz
koldarkeria erakusteko beldurrik
ez dudalako izan.

Zoriona zer den badakit
zoritxarra onartzeko oztoporik
ez dudalako jarri inoiz.

Ez ditut nire ideiak babestu
aurkakoak ezagutzea ere
haien osagarri zelako.

Ez dut ospe sozialik defendatu
ez dudalako argitasuna ilunduko
zidan mozorrorik onartu.

Justizia defendatu dut
boteretsuaren aurka indarra erabiliz
ahularentzat gozotasuna opari.

Ameslaria izan naiz
errealista izateko
zaharregia jaio nintzelako.

Munduaren funtsa ezagutzera
iritsi nintzen neure egoa
ahazten jakin nuenean.

Neure burua aurkitu dut
betetasunaren printzak zetozenean
han nengoelako.

Biluzik agertu izan naiz
ez nintzelako nire sentimenduak
estaltzen ibili.

Neure buruarekin
kontent egon naiz,
inor garaitu beharrik ez neukalako.

Ez nau inork suntsitu
ezta azken orduaren ikarak ere,
beti egon naizelako hiltzeko prest.

Egina neukan testamentua:
ezer gabe jaio zena
ezer gabe joango den promesa.

# IDAZLEAREN ESNAERA

Idaztea hitzekiko inozotasuna galtzea da,
eta bizitzako gertaerak
argi berri batez janztea;
idaztea ilunpeari orduak jatea da.

Idazleak kea margotu diezaioke
itzalita dagoen sukaldeko tximiniari;
udazkenaren koloretan
hanpurus dagoen basoari
ikara bat ipin diezaioke,
hotzikara bat
bakardadearen arima berari.

*Ezer ez da dioten bezalakoa,*
esan dezake idazleak,
*ezerk ez gaitu garenak izatera behartzen,*
*dena alda baitezakegu*
*aldatu egin garela esanda soilik*.

Baina ez da eskua idazten duena,
begirada baizik.

Idazleak ez dauka beste botererik:
patrikan daraman libreta zirriborratuz
mundu berri bat jendearen eskuetan
jartzeko ahalmena;
bere hitzak izan litezke
isiltasunean egoteko modu berri bat,
edo bidaia abiatzera
bultzatuko zaituen egunsentia.

Baina ez da begia irakurtzen duena,
bihotza baizik.

Idazle batengana bazoaz
ez joan diru bila,
misterio baten bila baizik;
bere hitzen lantegi gorian
bereizten ikasiko baituzue
funtsezkoak diren gauzen
edo ezertarako balio
ez dutenen artean.

Ez baita bihotza esnatzen dena,
kontzientzia baizik.

# ASKE IZATEAREN IKARA

Asko desiratu izan dut
laudatua izatea, loriatua,
kaxkarra nintzela entzuteko aukera xumeenak
izutzen ninduen aldi berean.
Hitz ederren bila ateratzen nintzen orrietara
anonimatora zigortua izateko ikararen itzalak
atzetik jarraitzen zidan bitartean.
Emozioz itxoiten nuen norbaitek balio nuela
eta onena nintzela idatziko zuen orena,
baina dardaraz bizi nuen
beste batek mediokritatea
aurpegiratuko zidan eguna,
iritsi baino askoz lehenagotik ere.

Urte askotan izan nauzue esklabo
lausenguak eskaintzen dizkidazuenok,
gehiegitan izan nauzue mendean
kritika txarrak botatzen dituzuenok.
Aseezina zen nire talentuaren
baieztapen egarria,
eta gozakaitza ukapenak

haragi-bizian urratutako zauria.

Gogor-itxurak egiten nituenean
ahul-ahula nintzen,
baina etsipenaren aurkako indarra
ateratzen jakin nuen nonbaitetik.
Laudoriozko hitzik gabe
eta ahantzezinak zitzaizkidan
erasoetatik landa ere
jarraitu dut idazten,
jarraitu dut kantari.

Inorekin alderatzeari utzi nionean
lortu nuen aske izatea,
eta besteek nitaz zuten ikuspegitik
kanpo atera nintzenean
asetu ninduen —estreinakoz— neure lanak.

Eraikia nuen inoiz deusezten ez den zubia:
bihotz batetik beste bihotz batera
zuzenean doana.

# MONASTERIOA

Nire etxea da nire monasterioa.
Bertan dakusat mundua dena,
eta munduan banengo ikus ez nezakeena.

Hormetako margolanetan dakusat
itsasoa,
beti mugitzen,
ez atzerago ezin aurrerago,
bere babeslekua aurkitu ezinik
lurbira osoan.

Leihoan dakusat
distantziaren krudeltasuna
paisaia edertzen,
gorputzak ematen dizkit
jatorduetako ezkilotsak,
eta interesgarriak ez zaizkidan
helburuez betetako marea bat da mundua,
aldika trumoitsu,
tarteka soilik baketsu.

Intsentsuaren keak
sortzen dituen kiribiletan
aurkitzen dut
zerurako lehen atea,
airea zeharkatzen dakien hori.

Gauerdian erretzen dudan
haxixaren keak
irekitzen du
zerurako bigarren atea,
neure baitan dagoena.

Bosteraino kontatzen jakitea
aski zait bizitza ulertzeko.
Bost: nire bakardadeak dira bost.
Lau: nire lagunak dira lau.
Hiru: nire ilusioak dira hiru.
Bi: nire amodioak dira bi.
Bat: heriotza da bat eta bakarra.

Musikaren beilazko ametsetan bildurik
unea gozatzen ikasten ari naiz,
‘hemen’ eta ‘orain’ bizitzearen
intentsitatea dastatzen.

Iragana eta geroa
bosgarren solairutik erortzen uzten ditudan
petaloak dira,
kategoria astunegiak zorionerako.

Nire etxea da nire monasterioa,
eta gauero begien aurrean
iratzartzen den eternitatea
eskaintzen zait,
hirugarren atea zeharkaturik
—itzulerarik ez daukala jakinda ere—,
bertara joan nadin.

Milaka bider ikararik gabe
egin dudan bidaia honetarako
prestatzen ari naiz nire monasterioan,
beti ezberdina baita
zeure baitara burutzen duzun
bidaia bakar hori,
etxerako itzulera betirakoa.

# POESIA ESAN

Poesia esan
eta tximeleta baten hego-ikarak
datozkit sabelera hegan,
poesia esan eta
posible zelako institutu hartako horma
zarpailduak deblauki udaberritzea.

Poesia esan eta
soldata baten mendean bizitzera
kondenatuak geunden morroien patua
eraldatu genezakeen;
poesia esatea aski zen
gaztaro likits hartako sexuaren
lupetzean lotoa ernaltzeko,
loreen eta erleen arteko
txirli-txorlo baporetsua hedatzeko
gogo debekatuen zingiran.
Poesia esan eta kiratsak
labanda lurrina isurtzen zuen.

Poesia esan eta salbatzen ginen
Hezkuntza sistema toxikoaren zigorretatik.
Poesia esan eta hartzen genuen arnasa
arrunkeriaren uhin gasoilduetan.
Poesia esan eta bagenekien ez genuela
iraultzaren beherapenak saltzen amaituko
udaletako batzar aretoetan.
Poesia esan eta maiatzeko belarretan etzaten ginen
ametsik puruenekin mozkortuta.

Poesia esan
eta tximeleta baten hego-ikarak
datozkit sabelera hegan,
poesia esan eta
posible delako ukitu ezin diren
aberastasun guztiak ekartzea
udaberriaren hondakinen erdira.

# AIZKOLARIA

Morre dun infarto
un aizkolari vasco
logo dunha rifada aposta,
Galiziaraino ere iritsi zen
zure heriotza tristearen albistea,
—epikarik gabe ordurako—,
egunkariaren bazter batean,
xelebrekeriak biltzen diren lekuan.

Jose Maria Mendizabal
faleceu onte ós 63 anos,
eta ez zioen ezer
zahartzaroari zenion ikaraz,
edo oraindik ere gazte
sentitzeko zeneukan trikimailuaz
—enborrak albait azkarren moztea—.

Pero non chegou a completar
a proba ó non atoparse ben,
eta ez zioen ezer
indarrak lehenean zirauela

jende aurrean agertzeko
zeneukan beharraz,
lekukoen behar horretaz
—ispilurik gabe ezin bizi zu ere—.

E saiu do vehículo,
antes de caer ó solo,
eta ez zioen ezer,
ezin zinela babestu
bizitzaren desarmonietatik
paisaia jakinen gordelekuetan
—etxean, lagun zaharren ohituretan—;
6.000 euro jokoan
iragana berpiztuko zutelakoan.

Non puideron reanimar o aizkolari,
que faleceu sobre as 15:00 horas,
lekuko bakarrak sanitario bi
eta moztu gabe
plazan, eguzkitan
utzi zenituen enborrak,
harean etzanak,
ezer egin gabe ere
kirolaria garaitu zutenak.

# EMILE GRIFFITH-EN BI OINAZEAK

Emile Alphonse Griffithek
24 urte dauzka 1962an,
galtza ilunak daramatza
eta 68 kilo eman ditu baskulan.
Bere aurrean Benny Kid Paret,
galtza zuriekin,
welter pisuko txapelduna.
‘Marikoia!’ deitu dio Griffithi
—aurrez jokatu dituzten
bi borrokaldietan bezala—
trufa eta txantxa artean.

Lau egun barru
Madison Square Gardeneko
lapikoan, izerdi irakinetan,
Griffithek konorterik gabe
utziko du Kid Paret
hamabigarren asaltoan.
Txokoan, soka eta ukabilen
artean hesitua,

29 zartadarekin
txikituko dio aurpegia,
kolpe zuzenak, gantxoak,
crochetak arnasaren gibelera.

Kid Paret ez da gehiago esnatuko.
Hamar egun barru
hilko da ospitalean,
Griffithen biografiako
zoritxar nagusia bihurtuz.
Ruby Goldstein arbitroak
izututa
ez du borrokaldi gehiago zuzenduko.
Griffith hotelean ezkutatuko da,
jendeak listua jaurtitzen dio
aurpegira kalean:
batzuek gizon bat hil duelako,
besteek gizonekin oheratzen delako.

Heterosexuala da, bisexuala, gaya.
‘Emakumeak gustatzen zaizkit,
gizonak ere bai,
ez dakit zer naizen’,
adieraziko du Sports Illustrated-en,

‘berdin maite ditut
emakumeak eta gizonak’.

Zahartu zenean, burua galdu aurretik,
gogoeta egin zuen
liburu baterako,
zein arraroa den guztia esanez:
‘Gizon bat hil nuen
eta jende gehienak ulertu zuen,
barkatu zidaten.
Gizon bat maitatzen nuenean
zigortu egiten ninduten,
bekatari nintzen,
gizonzale galdua’.

75 urterekin hil da Emile Alphonse Griffith.
Ez zuten inoiz espetxean sartu,
baina bizitza osoa
preso sentitu zela
adierazi zuen.
Maitatzea izan zen haren kondena.

# HILTZAILEA

Ezagutu dut
hiltzailea nire baitan.
Labanari heltzen zion eskuaren indarra
ezagutu dut,
eta kolpea aurrera botatzen ikusi.
Ezagutu ditut
burdina zorrotzak
sabela zulatzerakoan
eragiten dituen
askatasunezko hotzikarak.
Zer nolako indarra sentitzen den
begiak lausotu zaizkionaren osotasuna
birrintzen ikusten duzunean,
giharrik gabe geratu diren arropak
lurrean odoltzen doazen bitartean
sentitzen den euforia eroa.
Ezagutu dut
heriotza etortzen ikusi ez duenaren
begi hanpatuetan
agertzen den ezereza.
Ezagutu ditut

hiltzeko aukera guztiak,
eta haietatik iheska ibiltzea da nire bakea.
Horregatik, maite, ez iezadazu
hiltzaile bihurtzeko eskatu;
ez nazazu probokatu,
ezingo nizuke eta
ezetzik esan.

# HAMARKADA BATEN KRONIKA

Sarea bota zenidan
eta arrain bihurtu nintzen.

Musu nerabeak eman zenizkidan
eta printzesa sentitu nintzen.

Laztanez asetu ninduzun
eta urtu egin nintzen zure besoetan.

Udaberriko euritan biluzik
emakume egin ninduzun.

Esposatu ginen egunean
lurreko zeruan sinistu nuen.

Behin aitzakiak jarri zenizkidan
eta errua besarkatu nuen.

Hurrena gezurra esan zenidan
eta terapian hasi nintzen.

Zure irainei arrazoia ematearren
ezdeus bihurtu nintzen ezertan.

Gau batean labana erakutsi zenidan
eta ikara infinitua bihurtu zen beila.

Behin bizkarra eman zenidan eta
haratago mundu bat zegoela ikusi nuen.

Beldurra galdu nuen orduan
eta indar-lore bat aurkitu barruan.

Azkenean agur esan nizun
eta neu izan nintzen.

# MUXU BATEN HISTORIA

Ez da maitemintzeko garaia,
besarkadarik gehiago ez
itsasoari begira.
Ilargiak baturiko begiradarik ez, mesedez,
bihotza taupaka jartzen duen sexu lurrinez.
Ez bagenuen maitatzen ikasi
ez da orain maitale misteriotsuetara
jostatzeko unea.

Ez da maitemintzeko aroa orain,
bizitza gozatzekoa baizik,
eguzki xume baten menpe
egunak igaro,
etorkizunari begiratu
mehatxuzko laino ilunik gabe,
ardo bat edan
denbora iraungi dadin itsas-hegian.

Ez da maitemintzeko unea honezkero,
utzi haserreei eta saminei
kaioen kalakan hegaldatzen,

leun eta arin doan ontzian
baketuko da bihotza.
Begirada samurren aroa da,
sahatsaren eta kresalaren
arteko muxuarena.

# MUSIKA, PAISAIA

Musikaren erresonantziak
bihotzean uhinak sortzen dituenean
koadro bat begira dezakezu
eta han inork margotu ez zuen
paisaia bat ikusi,
zeure baitan bakarrik dagoena,
zuretzat bakarrik marraztu zuena
neska batek udaberri aspaldiko
haren ilunabarrean.

Kantu baten errepikapenak
gero eta bareago sentiarazten bazaitu
minik sakonenaren sendabidetik
gertu zabiltza,
tristuraren hondoraino iristeko
ausardia izan dutenen indarra
baitago musikak gauean
eskaintzen dizkigun
lastozko zuzietan.

Zure zigarroaren arnasan
biolin taldearen atzetik doan
pianoak klarinetearekin sortzen dituen
kiribilak hegaldatzen badira,
menorreko akorde batek lanbrotu duen
melodiari ezin badiozu alde egiten utzi
desanparoaren oihartzunak dakarren
erraritasun bat sentitu gabe
hurbil zaude helmugatik,
eta egon zaudenean.

Aspaldi zeure baitan
gramofonorik gabeko basamortu izkinakoan
abandonatu zenuen euri antzinako bat
zure masailak bustitzen hasi baldin bada
sendatuta zaude,
haurtzaroan paseatzen zenuen
eguzki-begiaren kalostratik
mendeetan urrundu zintuzten
ekaitzen izpi ahuletatik
betirako salbu.

# UDATZENA

Gaua, loak iratzartzen duen infinitua.
Euria sahatsei malkoak eskaintzen.
Trena, babesik gozoena.
Familia bat osatzeko asmo hura,
zehaztu ez zena.
Eta berriro trena,
neure baitatik urrun nabilenean
etxera naramana.
Haurtzaroko txakur haren begirada,
tiroa ematera nindoanean.
Amak erdaraz idatzi zidan gutuna,
samurtasuna ezin adieraziz.
Eguzkia pegar bete zilar isurtzen
goizean goiz itsasoan.
Nire eskerrona arrats bioleta bat
oparitu didan zeruari.
Ametsetan ezagutzen dudan mundua
gorputza mundugabetzen ari zaidan bitartean.
Bederatzi urte neuzkala sabelean uhinak
eragin zizkidan neska haren begirada.
Idatzi nuen liburua, lehena,

dendako beiratean irakurleen atzaparretan uzteko.
Etsaitu nauten lagunak,
tradizioa desakralizatu nahi izan dudalako.
Motoan egindako bidaiak, ilargipean,
katagorrien ibilbide sekretuetan barrena.
Nire heriotza noiz izango den
eta nolakoa erakutsi zidan sorgina.
Eta berriro trena,
Gaztela zuritu zuen elurtean
barrena Siberia erakutsi zidana.
Irakurri nituen esaldi jakintsuak,
irakurtzerako banekizkiela konturatu arte
jakintsu egin ez nindutenak.
Itsasoaren hondorik sakonenean dagoen iluntasuna
baino beltzagoak izan ziren tristuraldiak.
Eguna belztera datorren ilunabarra, ondoan
eduki nahi zenukeen pertsonaren izena argituz.
Izandako arrakastak, eta porrotak,
etxe aurreko arbolaren kimuetan horituta.
‘Zer izan naiz?’ galdetu eta
‘norentzat izan zara?’ erantzuten didan
antzigarraren oihartzuna.
Paisaia honetan hostogabetzen da nire bizitza.

# GEREZIEN BRISTADA

Ezagun dut elizan
sartu den emakume ile horia.
Askoz gizenagoa da
—30 urte bataz beste—
nire oroimenean bizi den
bederatzi urteko ume hura baino.

Sara zuen izena,
eta behin gereziak
jaten egon ginen
arbolara igota,
elkarri ahora eskainiz
fruituaren haragi samurra.

Ez dut gehiago
halako gerezirik aurkitu
hipermerkatuetan.

Gure arbolakoak euskaldunak ziren,
Sararen ezpainak Sevillakoak,

baina artean ez nuen
‘mestizaia’ hitza ezagutzen.

Soilik gerezi bat
hatz artean hartu
eta haren ezpain ertzean paratu,
horixe izan zen dena.

Inoiz ez dut ahaztu
Sarak niri begiratzeko
zeukan modua,
eguzki errainuek itxiarazitako
begi ñabar haiekin,
ahoan urtuko zitzaion gerezia
ezpainetara hurbiltzen nionean.

Gaur elizan berriro
begiratu nau;
ez-ezagutuarena egin du,
baina ezezagunari
eskaintzen zaion liparra baino
gehiago luzatu da
gure artean zirrara.

Itzalia zen haren ninietako
eguzki-izpi lisatua,
begiratu arren
aspaldi ikusteari
utzi diotenen
opakotasun mortuaz,
ezertarako balio ez duen munduak
bizitzaren irudimena
irentsi balio bezala.

Baina haren begirada
amatatu egin dela
ikustea baino
larriagoa litzateke, beharbada,
pentsatzea nire begiradak
ez zuela izan, inoiz,
ezer liluragarririk harentzat.

Hori da, agian, gaur elizan
gure begiek adostu duten
hitzarmena,
elkarri minik ez egiteko
itun sakratu bat,
arrangura eta herra

guztietatik aske
urteen eramana
elkarri leuntzen
lagunduko diguna.

# MORROIAREN ASKAPENA

Zer dakigu heriotzari buruz?
Ezer ez,
beste batzuek kontatu digutena besterik ez.
Ezin heriotza ezagutu
bizirik gaudelako.
Baina nortzuk ziren
mendeetan heriotzaz idatzi duten horiek?
Gure moduan bizirik zeuden beste batzuk.
Guk ez baldin badakigu
ezer heriotzari buruz
zergatik sinesten dugu
haiek zerbait jakitera iritsi zirela?
Heriotza arazo bihurtu dugulako.
Arazo batek konponbidea eskatzen du,
eta haren opari ilunkara
gizaldiz gizaldi argitzen ez bada,
izu-ikara bihurtzen da.
Beldurra dugulako sinesten ditugu
gure moduan beldurrez zeuden beste batzuek
idatzitako sinplekeriak.
Gizaki beldurtiak ez baitu jakinduria bilatzen,

sineskeriak baizik.
Ez du nahi jakitea, sinestea baizik.
Heriotza, ordea, ez da arazo,
misterio bat baino.
Eta misterioak bertan murgil zaitezen
eskatzen dizu,
zu baino handiagoa delako haren orbana.
Bere barrenean hartuko zaitu
eta ez alderantziz.
Albo batera utzi beharko dituzu
ezarri zizkizuten
aginduak, dogmak, ipuinak
eta gauza ankerragoak.
Zama horrekin baldin bazoaz
ez zara misterioan urtuko.
Flotatzen geratuko zara
ikaraz beterik,
konturatu gabe ikara horrek
besteen morroi bihurtzen zaituela.

Heriotzaz idaztea aldez aurretik
gerra galdua dela jakinda ere,
horretan hasten garenoi
dilema garbi bat zaigu ageri.

Bi aukera bakarrik daude,
ez lau edo hamasei:
edo bizi zara eta ez dakizu ezer,
edo hil zara eta dena dakizu;
jakin gabe idaztearen absurdoa,
edo jakitearen isiltasuna.
Ondorio honek poema hau berau ere
baliogabetzen digu,
baina joko erretoriko bat eginez
hasierara itzul gintezke, galdetuz:
Zer dakigu heriotzari buruz?
Eta galdetu aurretik ere
bagenekien erantzunera iritsiko gara
behin eta berriz:
Ezer ez.
Hala ere testu hau idatzi beharra neukan:
orain, aurrerantzean ez dut
berriro galdera hori
erantzun beharrik izango.

# BEGIRADAREN MENDEAK

Emakume bat ikusten duzunean
zeri begiratzen diozu lehendabizi?,
galdetu izan didate kazetariek maiz.

Jaio orduko bular-buru bat
bilatu nuen bezala,
—gosea baino gehiago
ikara baretzeko—
geroztik izartegi izoztuaren bakardadetik
babestuko nauen begiradaren bila
eman dut bizitza.

Lehen minutu haietan
bizirik eduki ninduen berotasuna
daraman begirada,
azal hezearen lurrinean
hezita dagoen aberri baten segurtasuna
eskaintzen duen hori
bilatu dut beti
emakumearengan.

Maitemintzen direnean
bioleta bihurtzen
diren begiak.

Lehen argialdi hartan
amarena izan zen
begirada bera eduki dute
nire bihotzean antzigar-ildoak
ireki dituzten emakumeek,
zotal-lorez apaindutako
begizulo dotoreak.
Beste gorputz batzuen edertasunean
ez dut denbora asko iraun izan.

Lehen emakume haren
begirada bilatu dut,
hizkuntza berbera zekiena,
desanparoaren izkinarik galduenean ere
etxean sentiarazten zaituen hura,
bizitzaren lehen arnasaldian
hartu ninduen begi-zohardi bera
izan dadin
betirako itzalaldiaren orduan
joaten utziko nauena.

# EMOZIO BATEN PREZIOA

Londresko artezale baten etxera
sartu da Renoir, Pierre-Auguste.
Ez da oso ezaguna artean,
baina iragarle aurreratu batzuk
hasi dira usnatzen
etorkizunean izango duen
ospearen izurra
margolariaren paletan.

Gela dotore batean,
maina bereziz argiztaturik,
maisulan kuttunena erakutsi dio
artezaleak, bere ohorea
eta gutizia:
‘Hona Rousseauren paisaia bat,
ez da batere ezaguna!’.

Renoirrek irri egin du,
deabrutxoak ninietan dantzari,
ezagun duen koadroari begira:
aurrean dauka gaztetan

margotu zuen paisaia hura,
Henri Rousseauren erara,
sinadura eta guzti
faltsutuz jostari.

Renoirrek ez dio ezer esango
—nor da bera ilusioak birrintzeko—,
zabalik utziz horrela
hainbat dilema:
margolana norena da,
Rousseaurena ala Renoirrena?
Obra faltsua da,
ala benetako Renoir bat dugu?
Zeinen prezioan saldu liteke gaur,
Rousseaurenean ala Renoirrenean?

Zein da emozio baten prezioa?
Erantzuna zeluloidean ehunduko da
ehun urteren buruan
Giuseppe Tornatore-ren
‘Cinema Paradiso’ filmean.
Kritika txarrak ditu Italian,
gutxi iraungo du aretoetan,
baina ikusle aurreratu batzuk

hasi dira usnatzen
etorkizunean izango duen
loriaren lurrina.

Siziliako zine areto bateko jabea
liluraturik dago, beha eta beha,
irudien ternezia isuriari,
eta dohainik eskaini du
filma ikusteko sarrera:
‘Gustatzen bazaizu
irteeran ordaindu’.
Doan sartu den jendeak
malkotan blai ordaintzen du
irteeran bere emozioaren
prezioa.

Hartara,
Amara Oliveira 82 urteko
amona brasildarrak ere,
bizitza osoa zine bateko
txartel-saltzaile gisa eman arren
inoiz film bat ikusteko
sosik izan ez zuenak,
ikusi ahal izango zuen

emozioen sorrera
pantailatik behera.

Ba ote dauka gizakiak
ardura handiagorik
poemak, kantuak,
filmak edo artelanak
nork bere emozioen arabera
ordaintzen ikastea baino?

# TARIK CHAOUFIREN IRAGARRITAKO TRISTURA

Euskaltel txirrindulari taldeak
ohar bat kaleratu du
iaz fitxatu zuten
Tarik Chaoufiren
historia kontatuz.
Testua oso poetikoa da,
agerian utziz
kirol egitura baten
dekadentzia sakona.

Marokoarrak
taldea utzi du
—bere abentura uste baino
lehenago amaitu da—,
gure artean bizitzera
ez delako ohitu.

T.C.k arazo bat zeukan ilunabarrarekin.

‘T.C.k ez du ongi eraman
hainbeste denbora
etxetik kanpo egotea,
Euskadin ez du ongi igaro
etxekoen berotasunik gabe’.

‘Egunak luze egin zaizkio,
triste, ez du gainditu
ilunabarretako bakardadea,
etxetik kanpoko
gauen goibeldura’.

Argazkian garbi ageri da:
laranjaz jantzitako
kideen artean
txandal beltz bat,
arrastiriaren arnegua
begiradaren flash itzalian.

Tristura eramateko
poeta izan behar da.
T.C. orain ari da ulertzen
Harkaitz Canok, ordurako,
idatzia zuena:

*Eguna gau bihurtzen denean gure pentsamenduak norenganantz doazen, horixe da benetan bizitza honetan norbait maite dugun jakiteko erarik fidagarriena.*

Tristura apur bat aski
elitearen promesak
gutxiesteko;
tristura gutxi bat nahikoa
dominak gogaikarri
bihurtzeko.

Arazo bat du T.C.k,
tristurak ez diola diruari obeditzen.
Arazo bat du T.C.k,
gorputzak ez diola tristurari obeditzen.

T.C.k etxera itzuli nahi du
bizikletatik jaitsi orduko,
ibilbide osoan entzuten
etorri den
Ruper Ordorikaren kanta gogoan:

*Nor da gogoan daukazuna,*
*lo aurreko zure instanteen jabe*
*nor da?*

T.C.k etorri behar izan du
H.C.ri eta R.O.ri arrazoia ematera,
irabazteko zeuzkan karrerak
sakrifikatuz
poesiak kirola garaitu zueneko
egun loriatsuan
besoak behera
jaitsi dituenean.

# EGIAREN BILA

Egiaren bila abiatu nintzen
mundurat jaio orduko,
eta bular handi bat aurkitu nuen
begien aurrean.
Neure burua baino handiagoa,
hura izan zen hilabete askotan
nire bizitzaren zentzua.

Egiaren bila abiatu nintzen
lau urte bete orduko,
eta eskolara eraman ninduten
anaia zaharraren eskutik.
Mundua hitzek definitzen dutela
ikasi nuen,
baina ametsak babesteko
isiltasuna dela tresnarik egokiena.

Egiaren bila abiatu nintzen
hamar urte lortu orduko,
eta aguazilaren aurrera
eraman ninduten zakar.

Lapurtzen genituen gereziak
pribatuak zirela ikasi nuen,
sakratua dela
natura mugatzen duen legedia.

Egiaren bila abiatu nintzen
hamalau urte berotan,
eta auzoko neskaren bular
sortuberriak ukitu nituen.
Zaplaztekoak ezarritako muga berrian,
gorputz haren jabetza
Elizarena zela ikasi nuen,
plazeraren ukamena dela zigor bibliko bakarra.

Egiaren bila abiatu nintzen
hamazortzi urte hippytsuekin,
loreen artean maiteminduta eroriz.
Bakardadeari beldurra ezagutu nuen,
familia bat osatzeko gutizia,
baina goiz batean katu esnatu nintzen,
eta ihes egin nion
legerik krudelenari, ezkontzari.

Egiaren bila abiatu nintzen

berrogei urte borobilekin,
baina ajeak bi egun irauten hasi ziren
eta sexuaren indarrak apaltzen.
Gorputzaren finitudea ezagutu nuen,
eta galdera baten zirrara:
gure energia mugatua bada
zer dago gugan mugatua ez dena?

Egiaren bila jarraitu nuen,
eta hirurogei urterekin
gauzak jakitetik jakintsu izatera
dagoen bidea sumatu nuen.
Uko egin nion ikasitakoari,
ekaitz batek ekaitz izateko
nire hitzen beharrik ez daukala
ulertu nuenean.

Azkenik, heriotzaren bila abiatu nintzen
laurogeita bost urterekin,
dotore jantzirik, eta pozik:
nire eguna zen.
Baina azken unean mila aldiz hila
nintzela ulertu nuen deblauki:
izatearen eta ez izatearen artean

ez dagoela alde izpirik.
Ez behintzat beldurtzeko adinakorik.
Barrez hasi eta barrez joan nintzen,
jaioberrien negarra egiaz barrealgara
hutsa dela jakin nuen une berean.

# IGARO ETA GERO

Begien aurrean neukan
euriaren lixiba
izotza desegiten
baina nik ez nuen ikusten.

Begien aurrean neukan
itsasoa belaontziari
bere kondena irakurtzen
baina nik ez nuen entzuten.

Begien aurrean neukan
erlojuaren lorratzetatik
denbora ihes egiten
baina ni lo egoten nintzen.

Begien aurrean izan ditut
beste begi batzuek
infinitua eskaintzen
baina nik ez nien sinesten.

Begien aurrean
igaro zait dena
baina ezer ikusi gabe
horra hor nire pena!

Begien aurrean
izan dut gogoa,
arrailduz argiezkilaren
amets hondoa.

Begien aurrean edertasuna,
kolore trazarik edo
hitzik erantsi gabe
ezin laudatu nuena.

Itsu egon naiz
dena bere horretan
eta mirespen hutsaz dena
ikusten ikasi nuen arte
begien aurrean.

# ANTROPOLOGOAREN DEIA

Ezagutu ditut munduaren aroak.
Ia-ia ikusi ditut zaldiak
ukuiluetan lokartzen
baporezko motorra asmatu zutenean,
abiaduraren aldeko apustua
diligentzien dotoreziaren kaltetan.

Ikusi ditut autobusak
herri txikien egunsentietan,
gainean arkume, otarrea eta oilo,
intziri, algara eta alara,
munduak sortzera deituak geunden umeok
lurraren mugak erakusten zizkiguten
baserritarren ondoan.

Ezagutu ditut lekuetara iristeko
behar ziren orduak,
eta ordu horien geldotasunean
bizitzak eskaintzen zizkigun
ziztada horiak,
hala nola San Jose loreak

hilerriko horma zaharraren zirrikituetan.

Ezagutu ditut eskuz idazten zuten
nobelagile makalak,
idazmakinaz betetako erredakzioak,
auzo osorako jartzen ziren telefonoak,
horditurik eta lurrean etzanda ere
jotzen jarraitzen zuten trikitilariak,
ardo-zopak hartzen zituzten umeak
eta bi hortz soilik zeuzkaten aitonak,
txuletaren malenkonia koipetsua begiradan.

Ikusi ditut umeak etxean jaiotzen,
eta hilotzen beila egongelan,
negarretik negarrerako zirkulua itxiz,
kanpaien hizkuntza, hiletak, suteak
eta bezperak xuxurlatzen gure belarrietan,
belardietan elkartzen ziren bikoteak
eta gauetan galtza barrenak jasoz
uretara amiltzen ziren arrantzaleak,
diz-diz, amuarrain distiratsuen xerka.

Ikusi ditut konfesionarioetako ilara luzeak,
hileko idi-jotzeak lotsatiki aitortzen,

putak ipurdia berotzen estufen aurrean,
ibai izoztuen begirada zuten apaizak
eta orein akorralatuaren dardaraz
bizi ziren beste emakume batzuk;
bekatuaren ideia serio hartzen zen bizimortua.

Ezagutu ditut munduaren aroak,
eta nire urteek diotena baino gehiago
bizi izan naizela iruditzen zait:
mendebeteko oroimenarekin jaio nintzen,
eta, geroztik,
denbora ezabatzen den
instantearen zain daude
nire begi zaharrak.

# NI, ROSA UGARTEMENDIA SAROBE

23 urte eman ditut
Espainiako espetxeetan.
Ez dira urterik txarrenak izan,
ez onenak,
adin guztiak baitira on
dagokiguna besarkatzen ikasiz gero:
tirokatuta ez hiltzearen ordain
baino ez dira izan
23 urte ziegaren gerizan.

12 polizia garbitu nituen,
12 gizon armatu,
poesiarik gabe
—utikan ‘begietara begiratu nion’
eta halako epelkeriarik—,
tragediarik gabe
—jokoz kanpo utzi genituen
armak ongi erabiltzen
zekizkiten haiek—.

Soldatan zeramaten balizko kondena,
odola, ohorea eta dominak.

23 urte inorekin lo egin gabe,
gorputz biluzi baten usaina,
arnasa eta zirrarak
ia ahazteraino,
isilik masturbatzen ikasi nuen
lepoa sabairaino tenkatuz
orgasmoaren bila.
Ez dut negarrik egin,
kartzelarien aurrean
gordetako malkoak
idortuak baitziren gauerako.
Gure moduloan pilularik gabe
lo egiten zuen bakarrenetakoa
izan naiz 23 urtez.
Proiektu batean sinesten nuen,
eta ekimen politikoen
babes kolektiboak eman dit
inoiz galdu ez dudan bakea.

Hil ditudanak ez nituen gorroto,
baina damurik ere ez dut

egindakoaz gero;
legeak betetzea nahi izan dut beti,
hasteko gure herriaren bizitza
bermatu beharko luketenak,
eta bukatzeko
okupatzaileak gure lurretik
igorri beharko lituzketenak.
Gure aurka egindako legerik ez betetzea
da bizitzako lehen ekintza zilegia.

Neure buruarekin hitz egiten
ikasi nuen hiru urteko
isolamendu bakartian,
23 urtez kartzelarien esku,
dominazioa zuten hizkuntza bakar,
gordin eta zakar,
antzezten ibili beharrik gabe.
Kartzela, legerik ez dagoen
eremu ospela.
Kalera ateratzera nindoan gauean ere
ez zegoen damurik haien begietan,
ni gehiago ez suntsitu izanaren
pena baino.

Osorik nago, hala ere,
pertsona apurtzeko prestatuak dauden
aro guztien ondoren.
Luzea izan da,
—hiru urteko propina eta guzti—,
baina munduko hiru gaitz
nagusietatik sendatuta atera naiz:
orainaren bizi ezina,
etorkizunarekiko izua
eta gauzen benetako garrantzia
neurtzeko itsutasuna.
Gainontzeko arazoak ez dira,
buruaren asmazio
—akaso tragediaren imintzio—
hutsak baizik.

# NEGUKO HONDARTZAK

Maite ditut neguko hondartzak,
jarraitzea neguak haiengan
uzten dituen lorratzak
begiaren bidaiak bailiren.

Txirla, maskor eta muskuilu,
itsasoaren kexu
oinpean nola kraskatzen diren
sentitzea, intzirika.

Neguan hondartza
jenderik gabe, eguzki-jale edo
bainularien umezurtz datzana
nirea delako dena.

Beste negu batzuetan ibilitako
hondartzen gomuta dakar gaur,
hondartzak, basamortuaren hedadura
daukan nire bakardadera.

Itsasertzeko etxeak
isil eta huts daude,
denbora iraungitzen duten
hilkutxa histuen gisan.

Harea zakarra da, minbera
—ai oinpeko urradurak
bihotzekoen ahanztura balekar—
urdinarrea eguzkiaren agurra.

Zilarrezko kolore hozbera zeruan
haizeak aurpegian zauri,
harrabotsaren odolak jotzen ditu
ene belarrietako karakolak.

Maite ditut neguko hondartzak:
aleka erauzten dituzte galburuak
denboraren gezur-mintegian
agerian utziz
egia dardarti baten sorburua.

# TELEGRAMA BAT

26 urte eman ditut telefono dei honen zain.
Ahots dardarti bat, indarge,
airea ekarri ezinik,
‘Ni izan nintzen!’ esanez bafada batez.
Nahiago nuen aurrez aurreko
aitorpen bat, agian, bere xumean.
Ospitalean bisitatu dudanerako
lasaigarriekin hormatua zuten
bere kontzientzia
esnaerarik ez daukan lozorroan.
Baina koman daudenek badute
euren kondena:
entzuten jarraitzea.
26 urtez gorde dudan istorioa
xuxurlatu diot astiro, neure xumean.

Nik lagun bat nuen, maite-maitea,
ez zuen denbora asko
atzerritik sorterriratu zela,
kargu publiko hura onartu ondoren.
Lehen ostiral hartan

iraganaz aritu zitzaidan,
bizitakoaz, eta, batez ere,
bizitzeari utzitakoaz.
Leku berean egin genuen
hurrengo ostiralerako hitzordua,
Lamia kafetegian,
eta ordu berean, goizeko hamarretan.

Orainaz aritu zitzaidan,
itxaropenaz,
eta denon lubakiak estaltzeko
denok behar genuen begirada garbiketaz.
Bizkartzainik gabe ibiltzen
ez ote zen beldurtzen
galdetzera ausartu nintzaion:
Hori duk nire lehen jauzia,
doan ematen diodan besarkada
etsai-haizeari.

Hirugarren ostiralean
goizeko hamarretarako iritsi zen
Lamia kafetegira,
puntual,
zuk abisua pasa zenien

haiek bezala.
Azkarra izan zen ekintza
militar milimetrikoaren abiadura:
aurpegi estali bat, bi tiro,
lurra jo zuen gorpua
eta odola,
hartu gabe geratu zen
kafearen eternitatean.

Telefonoa jotzen hasi zen
hildakoaren patrikan.
Isiltasun elektriko hura
aski izan zuen emazteak
—morse kodean idatzia bailitzan—
gerta zitekeena
gertatua zela jakiteko.
26 urte, baina badirudit
bi telefono deien artean
ez dela instanterik ere igaro,
etengabea izan baita nire itauna,
ez lorik kendu
ez antsietaterik sortu zidana,
esaldia osatzeko obsesio
soila zeukana baizik:

‘Nor izan zen?’.

Nor, lehen egunean bistaratu gintuena,
bigarrenean leku eta ordu berbera
errepikatzen zirela baieztatu
eta hirugarrenerako
hiltzaile talde hari
abisua pasa ziona?
Memoria estutuz, egun haietan
nire begiek fitxatu zituzten
aurpegi guztiak errepasatu ditut
26 urtez, nor ote zinen
jakiteko beste helbururik gabe.

Ez damurik, ez gorrotorik,
ezer misteriotsurik ere
ez nuen espero
zure begi-hodietan.
Zuek erailtzeko zeneukaten
kirol-antzeko jokaera baino
ez da izan nirea ere.
Eta orain badakit asmatu nuela,
26 urtetan alboratzen
joan naizen bisaia guztietatik

aurpegi hau berau zelako
geratu zitzaidan aukera bakar,
hau berau delako
zure heriotza hurbila
iragartzen duen
aurpegi zurbila.

# GAZTEA ETA AGUREA

Gaztea osasuntsua da,
beroa, odola bor-bor
zainetan zarrastel,
badu indar bat
harrotasunaren gailurrak
igota ere
ezer gutxira iritsi dela
sentiarazten diona.

Bere azal leunaren eskalan
tatuaturik daramatza
—ikusezin baina zaporetsu—
edertasunaren hitzak:
kresalaren begi lirainak,
lurrinaren eztitan
eta maindireen freskura
goizalbaren eskura.

Haragiaren zauriek
ez dute ikaratzen,
ez baitu ezagutzen oraino

sahatsazalezko bihotzean
eragingo dizkioten ebakiek
ez dutela mugarik
denboran.

Baina berak ez daki
bere ahalmenaren berri
eta ezin asmatu du
zoriona non bilatu,
jeloskor, konplexuz beterik
susmotxarpean mustulpika
eztanda arriskutsuen alartzean
egiten du lo
ilargien txotxongilo.

Zaharrak, aldiz,
ez du etxe hurbiletik
asko urrundu nahi izaten,
esku irmoz oratzen dio
txoko ezagunaren karelari;
aspaldi jakin baitzuen
—inoiz ez ahanzteko moduan—
ahula dela haren hezurdura,
irudimena soilik

duela indartsu.

Badaki, baita ere,
gizakiak bere izuak
agertzen diren lekurantz
abiatu behar duela,
baina beti aukera ezagunen alde
egiten ohituta
ez da ausartzen ahal
irudimenak agintzen dizkion
paradisuetarantz.

Eta gorputzari
—laster gorpu izanen denari—
lotuta bizi da,
inoiz askatasuna
ezagutu ez dutenen
—eta literaturak maiz
jakinduriatzat izan duen—
etsipen basati baten
zamapean makurtuta.

Batek ez dakienaren
eta bestea ausartzen ez denaren

zirkuluak osatutako hesian
lerratzen da
—motel, oso motel—
gizateriaren ibilbide etsia.

# HILERRIA

Altzifreen hosto artetik
sartzen diren
eguzki izpiek
fosil bihurtu duten
ikara urdin bat baino ez da
zure maitasunaz daukadan
oroitzapen guztia.

# HIZTEGIEN DESAGERPENA

Gizakiaren gaitza:
Pentsatzea.
Neurri egoki guztien gainetik
eztanda egin zuen
garunaren mende.

Garun hiper-garatua
piztia ahul baten gorputzean.

Bizitze hutsarekin aseezin
helburu gorenen joranean
alhatzen zaio kordea.

Ezin da konforma
errota baten musika biluziaz,
gero datorkionaz ments
teoriak ditu amets.

Nabigatze hutsarekin
nahigabetan zornatzen zaio
gau askotako loa.

Gogoangarri eta hurbileko
izan duen orori
eutsi nahiak
egin ditu jori
haren kexak eta mainak.

Utzi gauari gau izaten,
utzi goizari txoriak esnatzen,
oraina inoiz gaindituko ez duzun
piztia baino
ez zaren horrek.

Larrazkeneko basoen koloreak
egunsenti eta inularreen ohoreak
aski ez balitu bezala,
munduan egoteari ezarri dizkion
trauma amaiezinak
unibertsoari mintzeko beste
lirateke...

unibertsoak irakurtzen baleki.

# BATZEN GAITUENA

Isiltasuna,
hitzen etsipena
ala jakinduria
soilaren garaipena?

Isiltasuna,
ezinaren haria
ala burutu den
bidaiaren saria?

Isiltasuna,
hutsaren lekua
ala zentzuak
bete duen tenplua?

Isiltasuna,
nola heldu zara
umearen begietatik
agurearen zimurretara?

Isiltasuna,
zarata gabezia
ala eroritako
egoaren ausentzia?

Isiltasuna,
esan ez dena
ala hitzaz
haratago dagoena?

Isiltasuna,
zurea al da
errurik ez dagoen
erreinu hura?

Isiltasuna,
nora zoaz?
Begira hitzei
mundua erdibitzen.

Isiltasuna,
zatoz epaitu gabe
ikusten ikasi duten
begi zahar hauetara.

# WATSAP

Argazki bat bidali didate mugikorrera.
Hilotz bat ageri da bertan,
ni neu.
105 urte dauzkat
hiloztuko naizen eguneko argazkian,
geroak onartu balu bezala
orainak present bihurtzeko dagion gonbitea.
Gertatzen dira horrelakoak denboraz
beti mesfidati izan garenon espazioan.
Lihozko arropek estaltzen dute gorpuzkila,
kresal idortuzkoa da
mahaitik behera lerratzen den oihala.
Aurpegi hori,
erabat ezaguna ere ez zaidana,
barrezka ari da
solemnitatearen hitz anpulosoei.
Aseturik hil da
gorpu horretan bizi zen
mixurka-bihotza,
aurkitzen zuen oro
plazer oso bihurturik.

Asetu zituen grinak,
loria-nahiak eta jakinminak.
Asetu zuen sukarrik aseezinena
—sexua—
behin eta berriz adin guztietan
loratzen zitzaiona,
obulu bakar bat ere ernarazi gabe.
Borrokatu zuen
giza hierarkia guztien aurka,
eta ihes egin zion beti
—patxada erradikal baten ganoraz—
botere nahiari,
bere kiratsa
harremanak mingosten zituenean
jasanezina baitzitzaion,
baita fisikoki ere.
Bidaiatu zuen, alderrai eta noranahi,
bakardadez bakardade,
eta bidaiatzeari utzi zionean
ohartu zen iritsi zela
beti egonen zen lekura.
50 urterekin gertatu zitzaion hori.
Eta bizitzak beste 50 urte eman zizkion
—5 urte zientziaren opari izan zen—

ikasteko behar izan zuen denbora bera
izan zezan ikasitako moduan bizitzeko.
Geroztik ez zion uko egin ezeri,
baina ezeri ez zion eutsi nahi izan.
Utzi dena libre,
datorrenari
eta doanari
xuxurlatuz
azken argazkirako prestatu zen arte.

# GARAIZ BESTEKO IKARAK

Jadanik desargi den eguna agurtuz
irri egiten dit
mila mendetako gauen jitoan
datorren istorio bizar-zuriak.

Maisu, zer gertatzen da hil ondoren?
Ez dakit!
Zu ez al zara bada jakintsua?
Bai, baina ez nago hilda!

Han zaudenean, jakinen duzu
zer dagoen han.
Orain hemen zaude, eta zaude erne,
hori da eta daukazun ondare bakarra.

Ez aurreratu asmoak,
ez atzeratu begirada,
denbora egia dela sinestea baita
gogoaren gaixotasuna.

# HILOTZIK BAKARTIENA

Izango naiz berriro enbrioi,
ernamuin arina
haize leunen abaroan,
hartuko dut lekua
izartegiaren sabelean,
behiala, mendeetan zehar,
emakume ugariren
erraietan kokatu
nintzen bezala,
oroimenean baitut ernea
mendez mende izan naizena,
azken hatsa eta arnas lehena,
bir-sortzearen akiduratik
aske
utziko nauena.

# EURI TANTAK

Eta bidean akituta
aurkitzen zarenean
jakin ezazu
badirela hiru leku
bakearen pausatoki,
haiei begira
inoiz aspertuko ez zarena:
sua,
itsasoa
eta maitearen begitartea.
Sua, izartegia margotzen.
Itsasoa, infinitua iratzartzen.
Maitea, ilunabarra argitzen.

Hiru leku horietan biltzen da
gizakiaren obsesio nagusia
—kontzientziadun izan aurreko
batasun uste oparoa—
baketu dezakeen
sentipen abaroa.

Baina erne:
Sua, Itsasoa, Maitea
lipar batez ere
haserraraziz gero
enbataren basakeria oro
erakuts dezaketen
leku berberak
baitira.

# BIDAIAREN AMAIERAT

Hitzekin gara elikatzen
eta haiekin
gure arazoak gizendu baino
ez dugu egiten.

‘Itsasoa’ deitzen diogu
inoiz gehiago bere saihets-muinetan
—haren azalaren kolore aldakorretan—
ikusiko ez dugun mirariari.

Hitzak ditugu elikagai
eta haiekin daude eginak
zorigaitzaren espetxe ugari.

‘Porrota’ deitzen diogu
berez hiru urterako
zen amodioaren etenari,
bizi osorakoa sinistu genuelako.

Hitzek informazioa dakarte
esperientzia baino lehen,
eta haiekin daude oskoldurik
ahanzturaren bisaiak.

‘Begira amapolak!’ esandako unean
uzten diogu amapolak ikusteari,
etiketa izanen dugu aurrerantzean
jakinduriaren ordezkari.

Isiltasunera bidaiatzea da nire bokazioa,
etxalde bat non
zazpi leiho eta hamahiru ate
zabaltzen diren
hegoalderantz.
Etxalde bat,
munduan dagoena
baina munduarena ez dena,
desleku baten
helbide deskatalogatua
seinalatuz ilunabarrean.

# ZHUANG ZHOU-REN AMETSA

Arratsalde osoa
idazten eman ondoren
lotara noa
eta idazten jarraitzen dut
ametsetan.

Orduan idazten ditut
agian
poemarik ederrenak
baina esnatzean
ez ditut
jada gogoan.

Esaldi haiek
joanak dira ordurako
lurralde urrunetara,
munduaren
beste puntara.

Beste idazle batek
—Polonian, Turkian,
edo Malaysian beharbada—
jaso dituela
sinistu nahi dut.

Horregatik agian
identifikatzen garela
gure antipodetan
idatzi zituzten
testuekin.

Zerbait gurea
sumatzen dugulako
lerro, hitz
eta arnasaldi haietan.

Posible ote da
nik idatzitakoa ere
lurralde urrunen batean
lotara joan eta
ametsetan idazten
jarraitzen duen
norbaiten hitzak izatea?